



Euskararen berri OLAtu gainean

2015eko uztaileko ALBISTEAK

Mikel Irizar, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusia

Mikel Irizar (Ormaiztegi, 1954) izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusia. "Uste dut nik dudan eskarmentuaz eta ibilbideaz eta sektorearen ezagutzaz ekarpen on bat egiteko moduan nagoela euskararen prozesuan oso garrantzitsua den momentu batean"

Sustatu: http://sustatu.eus/1438009814?utm_source=rss&utm_medium=feeds

Lezoko Udala: Euskaldunak eta euskara "galtzaile" izango diren beldur da EH Bildu

Ostegunean legegintzaldi berriko lehen osoko bilkura deitu zuen Kepa Garbizu Lezoko alkateak. Plenoaren ostean, kezka azaldu du EH Bildu koalizioak, prentsa ohar bidez, "alkateak ez baitzuen galdera bakar bat ere erantzun". Euskarak aurrerantzean udalean izango duen lekuarekin eta trataerarekin ere kezkatuta daudela esan dute koalizio subiranistaren ordezkariak, "atzerapausuak izango ditu euskarak merezi eta behar duen trataerarekin".

Oarsoaldeko Hitza: <http://oarsoaldea.hitza.eus/2015/07/20/euskaldunak-eta-euskara-galtzaile-izango-diren-beldur-da-eh-bildu/>

Hondarribia: euskararen parte hartze prozesuaren bideoa egin dute

Hondar Alea Euskararen Ibian izenarekin euskararen erabilera sustatzeko guraso talde batek abiatutako dinamika hasi da fruitua ematen. Euskaltzaleen Topagunearen laguntzaz parte hartze prozesua egin zuten maiatzaren 15etik ekainaren 12ra bitarte, eta prozesu hori laburbiltzen duen bideoa zabaldu dute sare sozialen bitartez.

Bidasoko Hitza: <http://bidasoa.hitza.eus/2015/07/01/euskararen-gaineko-parte-hartze-prozesuaren-bideoa-egin-dute/>

Futbolari euskaldunak eta okzitaniarrak, euskararen alde

Uztailaren 25ean 18.00etan Donibane Lohizuneko Pavillon Bleu kirol zelaian, Reala eta Okzitaniako Toulouse FC taldeek futbol partida bat jostatuko dute. Ekimenaren irabaziak Bernat Etxepare lizeoa finantzatzeko bideratuko dira.

Naiz: http://mediabask.naiz.eus/eu/info_mbsk/20150721/futbolari-euskaldunak-eta-okzitaniarrak-euskararen-alde

Hiztegi Fraseologikoa: 3.500 ohiko lokuzio gaztelaniazkoren euskarazko ordainak

Labayru Hiztegi Fraseologikoa ipini du Labayru fundazioak bere webgunean. Gaztelaniaz gehien erabiltzen diren 3.500 lokuzio aukeratu, eta euskarazko ordaina bilatu diete. Urtebete baino lehen euskarazko beste hainbesteri egingo diete lekua

Sustatu: http://sustatu.eus/1437642920524?utm_source=rss&utm_medium=feeds

Outing

Outing egitea eskatzen duen prozesua da ahalduz. Gure erosotasun gunetik atera (armairutik atera) eta deseroso egon gaitzkeen egoeretara salto egin. Beste modu batera esanda (eta Lorea Agirrek barka biezat lapurreta beste behin), plazan sartu, bazterretik erdigunera egin.

Garaigoikoa bloga: <http://blogak.com/garaigoikoa/outing>

"Testuingurua euskaldunduz gero, pertsonen euskalduntzea berezkoa izango da"

Arkaitz Zarraga filologoak euskararen normalizazio prozesuan paper garrantzitsuagoa izan beharko lukeela uste du. Asteazkena eta osteguna artean 'Helduen euskalduntze alfabetatzea: moldaketa beharra' ikastaroa eskainiko du Baionan, Udako Ikastaroen baitan.

Naiz: http://kazeta.naiz.eus/eu/info_kz/20150722/testuingurua-euskaldunduz-gero-pertsonen-euskalduntzea-berezkoa-izango-da

Apple euskaraz, eskaera bat Change-Org-en

Applek etxeak bere produktuak euskaratu ditzan eskaera dago Change.org-en. Ingelesean dago, baina azkenean lerro batzuk gehitu dituzte euskaraz: "Kultura eta hizkuntzaren biziraupenerako, ezinbestekoa da egunero hizkuntza erabiltzea eta, jakina, teknologia arloan maneiatu.

Sustatu: http://sustatu.eus/1437502027444?utm_source=rss&utm_medium=feeds

Helduen euskalduntzeak prest du oinarriko curriculum berria, hastapeneko ikasleentzako bi maila berriekin

A1 eta A2 mailak eskainiko dira euskaltegietan, hasiberrientzat. Ez dira onetsiko administrazioarako hizkuntz eskari gisara, baina ziurtagiriak izango dituzte.

Berria: http://www.berria.eus/albisteak/113219/helduen_euskalduntzeak_prest_du_oinarriko_curriculum_berria_hastapeneko_ikasleentzako_bi_maila_berriekin.htm

EAEko herritarren %97 daude euskara "errespetatzearen" alde

Hizkuntza sailaren egitasmoak hizkuntzaren inguruko diskurtsoak aztertu ditu, analisisia egin, aurrera begira hizkuntza politika berritze aldera -besteak beste, eztabaida taldeak, foroak eta inkestak erabili ditu-.

Berria: http://www.berria.eus/albisteak/112823/eaeko_herritarren_97_daude_euskara_errespetatzearen_alde.htm